

Ez dago inauteria oztopatuko duen elementurik

Andoainen eta Urnietan euri-jasari, haize-ufadei eta hotzbero baxuari aurre egin zieten festazaleek / 4-13

AIURRI

Filmetako musika

Andoaingo Udal Musika Eskolak emanaldi berezia egingo du igande honetan, Basteron / 16

Hurria-Saharak bildutako laguntzaren berri eman du, bertso-saioa iragartzearekin batera / 2

Atzerrian egindako ikasketak homologatzeko tailerrak iragarri dituzte / 3

Aiurrikide izatea **%30 merkeago**

Aiurrik **lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena** jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Aiurriko harpidedun zaren horri, **zerga onurak ezarriko zaizkizu 2025eko jardueran** Aiurriri egin diozun ekarpenarengatik.

Horrenbestez, zure kuota **%30 merkatuko** zaizu errenta aitortpena egiterakoan.



Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz aiurrikide

AIURRI
KIDE 

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



KOMUNITATEA

HURRIA-SAHARA ANDOAIN

50 urteko borroka eta erresistentzia



Elikagaien bilketa eta antolaketa egin zuten aurreko astean, Andoainen. AIURRI

Aurtengo otsailaren 27a berezia da, Saharako Arabiar Errepublikaren aldarrikapenaren 50. urteurrena ospatzen baita. Efermerideak gogorarazten baitigu gaur egun, mende erdi igaro

ondoren, erresistentzian eta borrokan jarraitzen duen herri bat dagoela, Marokoren okupazioaren, nazioarteko axolagabetasunaren eta Espainiako Gobernuaren abandonuaren aurka.

Nazioarteko potentziek erakusten duten axolagabetasun horren aurrean, duintasunaren eta erresistentziaren eredu den saharar herriarekiko elkartasunezko herri-mugimenduak gaude: guk ez zaituztegu inoiz abandonatuko, beti izango gaituzue.

Andoainek, aurten ere, herri solidarioa dela erakutsi du, bereziki saharar herriarekin. Ez da urte erraza izan: nazioarteko gatazkek (Palestina, Ukraina...) eta estatu mailako gertakariak (Valentziako DANA, Galiziako eta Gaztela eta Leongo suteak...) laguntza humanitario handia mobilizatzea eskatu dute, eta herri hau beti egon da han, eskatu zaion lekuan.

Baina, hala ere, ez du saharar herria ahaztu, eta Hurria Sahara elkarteak pozik dago elikagaiak biltzeko kanpainaren emaitzarekin, 5 tona elikagai eta 75 kilo

konpresa biltzea lortu baitu. Horregatik, andoaindarrei eskerrak emateaz gain, gogorazi behar dugu hori guztia ezinezkoa izango zatekeela ikaste-txeen, supermerkatuen (BM, Eroski, SuperAmara) eta saltoki txikien (Coviran Karrika, Eroski Ondarreta, Telletxea) laguntzarik gabe.

Era berean, ezin dugu ahaztu tokiko hedabideen lankidetzak, beti bermatu baitigute espazio bat Hurria Sahara elkarteak saharar herriaren alde antolatzen dituen ekintza guztien zabal-kunderako.

Gainera, aurten, herriko farmaziei esker, helduentzako pixoihalen palet bat bidaliko dugu, hango Osasun Ministerioak hainbat ospitaletan banatzeko.

Azkenik, aipamen berezia egin behar diogu Andoaingo Udalari, modu aktiboan laguntzen baitu, bai elikagaiak biltzeko kanpai-

nan, bai Hurria Saharari behar duen laguntza ematen. Horretarako, gure esku jartzen ditu hainbat udal sailtako langileen lankidetzak eta behar dugun laguntza logistikoa. Beste behin ere, eskerrik asko guztioi.

BERTSO-SAIOA, BASTERON

Gainera, aurten ere, eta otsailaren 27aren bueltan, zehazki martxoaren leian, igandea, bertso jaialdia egingo da Bastero Kulturgunean. Bildutako dirua saharar herriarentzat izango da. Hauek dira aurtengo jaialdian parte hartuko duten lagunak. Gai jartzailea: Imanol Artola (Felix). Bertsolariak: Maider Arregi, Aitor Etxeberriazarraga, Oihana Iguaran, Joanes Illarregi, Maddalen Arzallus, eta, Aitor Mendiluze. Espero dugu aurten ere elkarte honentzat hain hunkigarria den ekitaldi honetan gurekin izatea.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

Maketzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietia).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Aurkeztear da "Ulhaintsaren negarra", Garmendiaren berriena

Jon Garmendia "Txuria" urnietarrak poesia-liburua ondu du, Elkar argitaletxearen eskutik

Jon Ander Ubeda URNIETA

Datorren otsailaren 24an, Donostian, hedabideen aurrean aurkeztuko du liburua. Alboan izango ditu Xabier Mendiguren Elkar argitaletzeko editorea eta Ortzi Oihartzabal, biolin-jolea. Poesia-liburua da, argitaletxeak aditzera eman duenez: "Jon Garmendiak ibilbide luzea egin du abestientzako hitzak –batik bat Xabier Solano eta Etzakit taldearentzat–, nahiz hainbat komunikabidetarako zutabeak idazten. Oraingoan, berriz, poesia idatzira egin du jauzia eta



Jon Gamendia, artxiboko irudian. AIURRI

bere lehenengo liburua ondu: *Ulhaintsaren negarra*, non bere bizitzako hainbat gorabehera hartu dituen inspirazio-gai, gure herriko hainbat jenderen ibilbidearekin ere bat egiten dutenak: ihes egin beharra, ezkutuan bizitzea, espetxea, deserria, oroimina... Bizipen pertsonalez harago, poemen intentsitateak eta edertasunak halako zinezkotasun bat ematen diete testuei, non-noizko inguruabarrak ahanztarazi eta ideologia oro gainditzen dutenak.

'Bidasoatik Harago'

Hilabeteotan, Euskal Herrian barrena, Xabi Solano eta Jon Garmendia ikuskizuna taulartzten ari dira. Laster, Urnietan izango dira. Ipuin laburrak eta poemak dira, trikitixa eta gitarrarekin lagunduta,

Atzerriko ikasketak homologatzeko saioak

Andoainen otsailaren 24an egingo dute saioa eta, Urnietan, apirilaren 28an

Erredakzioa URNIETA

Beterri Buruntza Garapen Agentziaren eskutik, "Parekatu" izeneko doako saioak martxan jarriko dira. Deialdian zehaztu dutenez, "homologazio-prozesuari buruzko informazioa eta orientazioa emango da, aurrez aurreko 2 orduko tailerren bidez, eta aukerako 30 minutuko banakako aholkularitzaren bidez..

Azarora arte, hilabete bakoitzeko azken asteartean saio bana aurreikusitako da lurraldeko udalerrri bakoitzean: lehenengoa, otsailaren 24an izango da, An-

doaingo Gaztelekuan, goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:00etara. Martxoaren 31n Usurbilgo Potoxoenan emango dute informazioa eta Urnietara datorren apirilaren 28an iritsiko da. Leikaion jarri dute hitzordua, orduko horretan ere goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:00etara.

Nori zuzenduta dago?

Beterri-Buruntzako udalerrietan bizi diren eta atzerrian ikasketak egin dituzten pertsonentzat dago zuzenduta. Jatorriz atzerriarrak izan, ala ez.

SAHARAREN aldeko BERTSO SAIOA



Maidar Arregi
Oihana Iguaran
Joanes Illarregi
Aitor Mendiluze
Maddalen Arzallus
Aitor Etxebarriazarraga

Gai jartzailea:
Imanol Artola "Felix"


Andoaingo
Bastero Kulturgunean
Martxoaren 1ean
12:00etan

Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza,
Stop eta Urrats
8.00€

Antolatzaileak



Laguntzaileak






Sesame Street haurrei zuzenduriko saio ezaguna da, hezkuntza eta entretenimendua uztartuz, mundu osora zabaldu zena. Etxeberri auzokoek osatu zuten irudimen handiko taldea. AIURRI

Inauteri-herria da Urnieta

Aurreko larunbatekoa baino eguraldi txarragorik nekez irudikatu daiteke: euria, haizea, hotza... eta, hala eta guztiz ere, dozenaka herrikide irten zen kalera. Gehienak taldeka antolatuta, inauteri-giroa zabaldu zuten herrian



Telebista saio ezagun ugari irudikatu zituzten Urnietako inauterizaleek. AIURRI



Telebistan maiz ikus daitezke super heroien filmak. AIURRI



Eguraldiari aurre egin zioten kuadrillak ez ziren gutxi izan Urnietan. AIURRI



Aski ezaguna den telebista saioa irudikatu zuen argazkiko kuadrillak. AIURRI



Trancas eta Barrancas panpinen agerpena biderkatuta agertu zen Urnietan. AIURRI



Amerikatik datorren Pressing Catcheko ikuskizuna Urnietaraino iritsi zen. AIURRI



Grand Prixeko sumoak, larunbat arratsaldean. AIURRI



Familian gozatzeko aukera bikaina da inauteria. AIURRI



Argazki eta bideo gehiago ikusgai daude Aiurri.eus gunean. AIURRI



Sukaldaritza-programak ohikoak dira telebistan. Urnietako inauterietan sukaldari beteteranoak eta juniorrak agertu ziren. AIURRI





Belar-metak jartzeko ohitura galtzen ari den garaiotan, ikusgai izan ziren Urrietako inauterietan. AIURRI



Artaldea batzea zaila bilakatu zen jaiak aurrera egin ahala. AIURRI



Mercosurren aurkako protesta zabaldu zuten. AIURRI

Baserri giroa irudikatu zuen Poxta Zaharrek

Bazkalostean, Poxta Zahar elkarteko inauterizaleak festa betean ziren Egape ikastolako jolastoki estalian. Baserri giroko mozorroak prestatzeko deialdia egin zuten eta haiekin bat egin zuten Urrietako gazte askok



Baserriko lanak alde batera utzi eta ospakizunarekin bat egin zuten argazkikoek. AIURRI



Oilo-festa, inauteri-giroko ospakizunean. AIURRI

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Bosko Anitz txarangak girotu zuen larunbat arratsaldea. AIURRI



Dantza saioak ez ziren gutxi izan. Haiei begira, ikusle ugari. AIURRI



Txaranga-doinuei esker, jendea kalejiran ibili zen. AIURRI

Dantzaldia, Egape ikastolako jolastokian

Bosko Anitz txarangak zabaldu zuen bidea eta haien atzetik karrozak eta konpartsak iritsi ziren Egape ikastolako jolastoki estalira. Bertan, hainbat taldek, aurrez entseatutako dantzak erakusteko aukera baliatu zuten




Dantza-saioak, larunbat arratsaldean, Egape ikastolako jolastoki estalian. AIURRI



Hainbatek aurrez entseatutako dantzak erakusteko aukera baliatu zuten. AIURRI



Urnietaako
udala



Euriari eta ekaitzari aurre egin zioten larunbat arratsaldeko desfilean. AIURRI



Giroa benetan makurra zen, larunbatean. AIURRI



Elizaren agintarien erregua ere alperrik izan zen: euria gogotik egin zuen. AIURRI



Plastikoak estalita ekin zioten kalejirari. AIURRI

Euria, haizea, hotza... eta gora Andoaingo inauteriak!

Euri-jasa handia bota zuen larunbatean, inauterien egun handian. Ospakizuna kale eta espaloietan bazen ere, orduak aurrera joan ahala, Oria eta Leitzarain ibaien ur maila nabarmen igo zen. Eta, hala ere, jendetzak bat egin zuen inauteriarekin

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Nekez irudika daiteke panorama kaskarragorik: euria, haize-bolada indartsuak eta hotza. Alperrik ziren aterkiak eta oinetako sendoak, inauteri festaz gozatu zutenek blai eginda amaitu zuten. Ez zeuden etsizko prest eta, gehien-gehienak, desfilean elkartu ziren. Aterpea bilatzea helburu zuten bazkalostean Karrikara hurbildutako konpartsakideek. Bus geltokia, taberna, karroza barrua, etxa-beak... ekaitzatik babestea izan

zen lehen erreakzioa. Atertuko zuen itxaropenik gabe, Zumearrantz abiatu ziren konpartsak eta karrozak. Zerua beltz-beltz eginda, elementuei aurre egin zieten ekitaldia epikoa izan zen. Apokalipsia zetorrela zirudienean, protagonismoa hartzera ohituta dauden festazaleek gertu zituzten bidelagunak: espaloien alde banatan zain zituzten ehunka ikusle. Inauteria behin ospatuko eta etxera joatea azkena litzatekeelako. Meritu handia izan zuten denek, inau-

teriaren egun handian, ezinezkoa zirudiena errealitate bilakatu zutelako. Kosta ala kosta eutsiko ziotela erakutsi zuten lehengo. Eguerdia iritsi aurretik, Udaltzaingoak lagunduta, Aranztegitik Zumea plazarantz abiatu zen lehen karroza-sorta. Bidean, pregoilarien funtzioa betez, musika-aparailuak topera zituztela, mezu argia iritsi zitzaizen bizilagunei: festa ez da etengo! Eta, hala, eguraldia makurra bazen ere, herrikideak kalera irten ziren. Gogoangarria.



Aterpe bila ibili ziren inauterizale guztiak, Karrika aldean. AIURRI



Inauterizaletasuna gaindiezina denean



Festa-giroari eusteko gogoz zegoen andoaindar ugari, larunbat arratsaldean. AIURRI



Euri-zaparradei eta kazkabarrari aurre egin behar izan zioten larunbatean. AIURRI



Hautsitako aterkiak ez ziren gutxi izan. AIURRI




Euri giroa... eta, hala ere, gora inauteriak! AIURRI



Umoreari eutsi zioten festazale ugariak, desfilean. AIURRI





Inauteriak

Atal berezia **Aiurri.eus** gunean

Agenda, argazki-bildumak, bideoak

Okm:

batzen gaituen distantzia

Egin zaitez aiurrikide

AIURRI

KIDE



Andoingo Mucedades taldeak ia-ia parekatu zuen talde originalaren maila. AIURRI



Otsailaren 14a izanda, saihestezina zen maitasunari erreferentzia egitea. AIURRI



Barandari helduta, ideia bikainak lantzen ditu argazkiko kuadrilla hevia. AIURRI

Ordu txikitan amaitu zen inauterien egun handia

Herrikide asko larunbat eguerdian atera ziren kalera eta, gainerakoak, arratsaldean. Eguraldia oso txarra izan bazen ere, jendetzak bat egin zuen inauteriarekin. Ordu txikitan ehunka ziren Goikoplazako karpan dantzan ari zirenak



Maria Luisa Etxeberria, klasikoa Andoingo inauterietan. AIURRI



Stranger Things telesail ezagunaren pertsonai ugari irten zen. AIURRI



Noe, Bibliako pertsonaia, eguraldiari erreguka. AIURRI



Kupoi-saltzaileen kuadrilla gaztea, Kale Nagusian. AIURRI



Hainbat erabiltzaile, Hiribusean, goizaldeko 01:00etan. AIURRI



Neguko Olinpiar jokoan giroko mozorro Andoaingo inauterietan. AIURRI



Karpan jendetzak gozatu zuen disko-jartzailearen saioa. AIURRI



Sardinaren ehorzketaren aurretik itzulgingurua egin zuten herrigunean. AIURRI



Sardinaren erreketan aritu zen taldea, ekitaldia amaitu berrikan, igandean. AIURRI



Sardinaren ehorzketa igande gauean egin zuten. AIURRI



Hiru ikastetxeetako ikasleekin kalejira jendetsua egin zuten Ostegun Gizenean, Gora Kaletxiki txarangaren doinupean. AIURRI

Inauteri-jaia Andoainen, Ostegun Gizenean hasita

Egun eguzkitsua izan zen ostegunekoa eta, horri esker, egitarauan aurrikusitako guztia egin ahal izan zen. Ikastetxeek hartu zituzten kaleak, bazkalostean. Eta, iluntzean, Udal Musika Eskolako kideek alaitu zuten eguna



Ostegun Gizeneko ospakizun handia, udaletxeko balkoitik. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Ostegun Gizenean, bazkalostean, Plaza Morean bat egin zuten Ondarreta Herri Eskolako, La Salle Berrozpeko eta Aita Larramendi Ikastolako irakasle eta ikasleek. Handiak abiatu eta kalejira osatu zuten, Goikoplazan amaitzeko.

Musikarien kalejira

Mexikoko doinuekin osatu dute aurtengo kalejira Udal Musika Eskolako instrumentu joleek eta helduen abesbatzako abeslariak. Olagaingo txistulariek

ere bat egin zuten haiekin, Plaza Morean.

Bertxin elkarteko hainbat lagun, lan eta lan

Antrosia Olabiden dozenaka herrikide elkartu zen arratsaldean, txokolate beroa dastatzeko. Taldetxoa aritu zen lanean, zehazki, honako hauek: Paco Vicente, Angelita Ballesteros, Flor Lopez, Antonio Gonzalez, Domingo Garcia, Angel Sanchez, Jovi Zarate, Juli Correas, Jesus Alvarez Mari Carmen Ortega, eta Maria Angeles Garcia.



andoaINDARRA
euskaraz



Ondarreta Herri Eskolako ikasleak, ostegun arratsaldean. Leizapunk izenez irten ziren kalera. AIURRI



Txokolate-jatea, Bertxinen eskutik, Ostegun Gizanean. AIURRI



Euskal Inauteria egin zuen Aita Larramendi ikastolak, ostegunean. AIURRI



Mozorrorrik ez zen falta izan Ambrosia Olabiden, Ostegun Gizanean. AIURRI



La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasleak, estralurtarrez jantzita, Kaletxikin gora, Goikoplazako bidean. AIURRI



Udal Musika Eskolako kideek emanaldia egin zuten ostegunean. AIURRI



Mexikoko kantutegi ezagunean oinarritu dute aurtengo errepertorioa. AIURRI



Urrietako neskek artxiboko irudian. AIURRI

Kopako partida dute Urrietako Gorengo mailako emakumezkoek

FUTBOLA Inauterien aurreko jardunaldian Urrietak 0-3 garaitu zuen Santo Tomas Lizeoa

Erredakzioa URNIETA

Kopa abiatu da eta Urrietako taldeak lehen bi jardunaldietan sei puntu lortu ditu. Azkena, inauterian aurreko jardunaldian, San Tomas Lizeoaren zelain (0-3). Larunbat honetan eguerdiko 12:30tan etxean ariko dira

gorriak, Luberriren aurka. Haiek ere sei puntu dituzte.

Euskalduna

Usurbilen jokatu dute asteburuan, goerako partida berria. Igandean izango da arratsaldeko 16:30ean hasita.

ERREMONTA Finalean da Ansa, Barrenetxea garaitu ostean

Erredakzioa URNIETA

Imanol Ansa sasoi bete dago, horixe dio Oriamendiko kronikak: "Urnietarra Kutxabank Masterseko finalera sailkatu da ligaxkako bigarren partida Endika Barrenetxeari 30-19 irabazita. Lehen partidatan zortzi tantotan utzi zuen Juanenea eta bigarrenetan 19n utzi du Barrenetxea. Udan lesio batek kalte egin zion buruz burukoan, baina banakakoan espezialista onena dela erakusteko prest dago". Ligaxkako lehen bi partidak horren erakusgarri dira.

Barrenetxeari freskotasun falta izan zitzaion, eta kantxan gehiago sartuta eta distiratsu zegoen aurkari baten aurrean, irabaztea ezinezkoa izan zitzaion.

Emaitzak ere mesede egin zion Juaneneari, bizirik jarraitzen baitu. Datorren larunbatean erabakiko da bigarren finalista, puntuak kalkulatu behar izan gabe. Juanenea edo Barrenetxea, bietako bat izango da Ansaren hurrengo aurkaria.

Euskaldunako goleatzaileak izena du Telmo Deun

FUTBOLA Partida amaitzen ari zela, taldera itzuli den Telmo Iruinek sartu zuen garaipenaren gola

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Futbolaz harago, Telmo entzundakoan, arraun kontuak datozkio burura bati baino gehiagori. Ereserkia aski ezaguna baita: "Zumaiako traineruak izena du Telmo Deun...". Ohorezko erregional mailako azken jardunaldian, santua agertu zitzaion Euskaldunari. Santua, esan nahi baita, Telmo aurrelaria. Talde osoarena da meritua baina ezin aipatu gabe utzi goleatzailea. Hainbat hilabetez kanpoan izan da eta, berriki, itzuli da taldera. Denboraldi honetan jokatu duen bigarren partidatan, 59. minutuan sartu zen zelaia eta partida amaitu aurretik utzi zuen bere arrastoa.

Golegile hutsa da Iruin, eta Euskaldunarentzat laguntza handikoa izango da. Iaz, esaterako, 27 partidatan 25 gol sartu zituen. Andoaindar askok gogoan

izango dute iazko maiatzean Iruinek Allerruren aurka sartu zuen gola. Orduan ere partida amaitzen ari zen eta atezainaren aurrean bakar-bakarrik geratu eta haren gainetik loratu zuen baloia. Igoera bermatzen zuen gol ikusgarria izan zen hura. Pozaren pozez kamiseta kendu eta korrika hasi zen. Eta, haren atzetik, jokalaririk guztiak. Bitartean, gola ospatzen ari ziren harmailetan ehunka zaletu.

Larunbat honetan, Oiartzun talde indartsua dator. Joaneokan 1-2 irabazi zuen Euskaldunak.

SAILKAPENA


14 Orioko	21
15 Deusto	19
16 Euskalduna	18
17 Mutriku	17
18 Hernani	16

LARUNBATEAN, UBITARTERA

16:30 Euskalduna-Oiartzun

Lasartearren igerilekua

KIROLA Igerilekuaren instalakuntzan matxura nabarmenak antzeman ostean, iazko azaroaren amaieratik itxita egon da Lasarte-Oriako udal igerilekua. Horrek eragin zuzena izan du Allurralden, haietako asko hurbildu baitira Andoainera. Aste honetan egin duten iragarpenaren arabera, otsailaren amaierarako prest egon daiteke igerilekua lasartearrentzat.



UDALA

ESKUBALOIA Senior mailako partida, ostiralean Urnietan

Urnietan Artola Harategia senior mailako taldeak ostiralera aurreratu du asteburu honetako partida. Ibilbidea zuzentzen saiatuko da, ostiral honetan, 19:30etan hasita. Hondarribia Bidasoa aurkari zaila izango du aurrean, hirugarren sailkatua.

Kadete mailako Iñaki Mecanizados Eibar Bren aurka ariko da, larunbatean, 12:00tan hasita.

SASKIBALOIA Junior mailako taldea, garaipen berriaren bila

Partaidetzazko ligan, aurreko asteburuan, junior mailako Erroibide taldea garaitu zuen Ganbara Representaciones Justino taldeak (50-57). Ligan bigarren postuan sailkatuta dago, 6 jardunaldi igaro ostean, 5 garaipen lortuta. Larunbat honetan Allurralden jokatu dute Zast taldearen aurka, goizeko 10:30ean hasita.

OTSAILAK 21
LARUNBATA · 15:15

GALARRETA
JAI ALAI

kutxabank
MASTERS
TXAPELKETA 2026

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)
ANSA II · ZUBIRI VS
EZKURRA II · AZPIROZ

2. PARTIDA (KUTXABANK MASTERS TXAPELKETA)
JUANENEA VS **BARRENETXEA IV**

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)
AIESTARAN VII · LARRAÑAGA VS
JABALERA · AIESTARAN VI

otsailaren 26tik
martxoaren 18ra
errigora.eus



ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA



Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak **euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan**

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

KORRIKA

URNIETA Batzordea

AEKK bilera berria deitu du. Irekia da. **17:30, Lekaio.**
Otsailak 24, asteratea.

ANTZERKIA

ANDOAIN "Rikardo III eta NI"

Shakespearen tragedia historikoa oinarri.
19:30, Bastero Kulturgunea.
Otsailak 20, ostirala.

AURKEZPENA

ANDOAIN LGTBIQ+

Herriko LGTBIQ+ errealitateetara gerturatzeko saiok antolatu ditu Andoaingo Udalak.
18:30, Arrate frontoia.
Otsailak 25, asteazkena.

JARDUNALDIA

ANDOAIN Gizarte-kohesioa

10:15-11:30 Gizarte-kohesioari buruzko hitzaldi-solasaldia.
Hizlaria: Sebastian Mora



Joseba Apaolaza eta Ainhoa Aierbe aktoreak. ADOS

URNIETA "52 Hertz" antzezlan

Ados teatroaren berriena, aktore ezagunen eskutik: Joseba Apaolaza, Ainhoa Aierbe, Dorleta Urretabizkaia, Martxelo Rubio, Amaia Irazabal.
19:00, Sarobe. Otsailak 22, igandea.

Rosado, soziologian doktorea eta Elizaren Gizarte Doktrinako masterduna.

11:30-12:00 Atsedendia, kafea.
12:00-12:45 Jose Emilio Lafuente, Caritas Gipuzkoako idazkari nagusia.

Urigain Kultur Etxea.
Otsailak 21, larunbata.

HITZALDIA

ANDOAIN Zaintza

"Hitz egin dezagun gure zaintzaz. aurretiazko borondateak", Olaia Aranaren eskutik.
11:00-13:00 Bastero Kulturgunea.
Otsailak 21, larunbata.

Zinema ardatz izango duen musika-emanaldi berezia

Udal Musika Bandako kideek kontzertua egingo dute, igande honetan, Bastero Kulturgunean

Xabier Lasa ANDOAIN

Singin' in the rain, Nuovo Cinema Paradiso, Coco... musika giltzarri izan da film ezagun horietan guztietan. Magia berezia sortzen baita bi arte jardueren uztarketaren ondorioz. Hala, gozarazteko asmoz, emanaldi berezia prestatu du Andoaingo Udal Musika Bandak: igande honetan, eguerdiko 12:30ean hasita, film ezagunen doinuak interpretatuko dituzte. Mikel Emezabalen zuzendaritzapean egingo dute kontzertua. Doan da sarrera baina aurretik Bas-



Udal Musika Eskolako Banda. AIURRI


teroko harreran jaso behar dira gonbidapenak. Besteak beste, Jacob de Haan, Ennio Morricone, Charles Chaplin edota Nacio Herb Brown musika konposatzaileen obrak entzungo dira Basteroko auditorioan.

Kantutegia

- Prologue: Variazioni in Blue. Jacob de Haan.
- Charles Chaplin. Selection for Concert Band (moldaketak: Marcel Peeters).
- Nuovo Cinema Paradiso Ennio Morricone (moldaketak: Peter Kleine Schaars).
- Singin' in the rain Nacio Herb Brown (moldaketak: Juanma Saez).
- Coco. Concert selection) (moldaketak: Eduardo Moreno).
- An Irish Party in third class. (Moldaketak: Richard Saucedo).



ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Song song blue

Larunbata, 21. 19:30.
Igandea, 22. 19:30.
Astl., 23. 17:00, 19:30.

Evolution

Larunbata, 21. 17:00.
Igandea, 22. 17:00.
El vestido
Igandea, 1. 19:30.
Astelehena, 2. 17:00, 19:30.



SINOPSISIA

Song song blue

Zuzendaria: Craig Brewer. **Aktoreak:** Kate Hudson, Hugh Jackman, Michael Imperioli, Fisher Stevens, James Belushi... **Generoa:** Musikala, Drama. **Herrialdea:** AEB. **Iraupena:** 132 minutu.

Musika, maitasunaren eskutik

Musika eta zinema ondo uztartzen diren film bikainak sortu dira zinema-industriaren historian: "Ha nacido una estrella", "Crazy Heart", "La La Land", "Mamma Mia", "Moulin Rouge"... Hugh Jackman eta Kate Hudson aktoreen berriena filmografia horretan sakontzen da. Musikak elkartu ditu bi aktore protagonistak eta, zaletasunean sakondu asmoz, Lightning and Thunder izen artistikoa jarri diote euren musika proposamenari. Milwaukeeko senar-emazteak osatutako Neil Diamonden omenezko taldea, arrakasta handia eta desamodio suntsitzailea bizi dute elkarrekin egindako bidaia musikalean. Benetazko gertaeran oinarrituriko filma da.

OUTLET
KALEAN
Otsailak 26-28

Otsailak 26
TXISTULARIAK
17:30 - 19:30

ANDOAINGO DENDAK BETI ZUEKIN

S2 SALKIN berrikidatzen